

GAI ZERREDA (2025/06/10)

1. Lekualdatze-lehiaketa
2. Ordainsarien igoera
3. Beste gai batzuk:
 - a. Espetxe-erakundeak
 - b. Lanbideko funtzionarioen egoera
 - c. IVAPeko ikastaroak
 - d. Zerbitzu medikoa

• LEKUALDATZE-LEHIAKETA

Lekualdatze-lehiaketari dagokionez, 2025eko lekualdatze-lehiaketaren oinarri orokorrak eta espezifikoak onartu dira, EAEko Administrazioako 25 III-A mailako edo maila horretatik beherako lanpostuak betetzeko. Enplegu Publikoaren Zuzendaritzak oinarriak landu ditu azken hilabeteetan, eta lanketari buruzko unean-uneko informazioa eman du mahai sektorialean. Langileen ordezkariak hasierako dokumentuari egindako alegazioak aztertu ondoren, behin betiko dokumentua osatu da, EAEko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako lehiaketen deialdiei eta EAEko Administrazioako eskaletako lanpostu hutsak betetzeari aplikatu beharreko araudia ezartzeko. Lanpostu horiek lehiaketa-prozeduraren bidez bete behar dira.

• ORDAINSARIEN IGOERA

Ordainsarien igoerari dagokionez, sindikatuek eskatu dute ordaintzeke dagoen %0,5eko igoeraren zenbatekoa ordaintzea. Administrazioak adierazi du Estatuko Administrazioak gai horri bultzada ematearen zain dagoela.

* BESTE GAI BATZUK

- Joan den ekainaren 5ean **Espetxe Administrazioako** Mahai Delegatuan sindikatuei helarazitako akordio-proposamenaren berri eman da. Administrazioak jakinarazi du lekualdatze-lehiaketaren eta etorkizuneko lan-eskaintza publikoaren zirriborro eta hurrengo deialdian lanean diharduela.
- CCOO sindikatuak eskatuta, **Lanbideko funtzionarioen egoerari** eta **IVAPeko ikastaroei** buruzko informazioa eskatu da, eta zenbait zalantza planteatu dira IVAPeko ikastaroen kudeaketak edo baimen jakin batzuen eskaerak langile horiei nola eragiten dien jakiteko. Administrazioak adierazi du Lanbiderekin estuki lan egiten ari direla trantsizioa errazteko eta sortzen diren gorabeherak konpontzeko.
- Sindikatuek, halaber, **Zerbitzu Medikoari** buruzko informazioa eskatu dute. Alde batetik, Lanbideko langileei dagokienez, Administrazioak honi buruzko zalantzak argituz, eta, bestetik, ekainaren 16tik aurrera Bizkaiko Ordezkaritzako Zerbitzu Medikoa Bilboko Maximo Agirre kalera eramateari buruz. Argitu da lekualdatze horren arrazoia osasun publikoa zaintzeko arreta hobe ematea dela Bizkaiko zentro guztietako Administrazioako langile guztiei, eta, beraz, aurrez aurreko arreta behar duten jarduketa guztiak (azterketa medikoak, osasun-laguntza, etab.) egoitza horretan soilik egingo direla.